



Zenbat da inportantea?



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Udazkena amaitzen den ber, Euskararen Egunean, euskararen urtaroan edo Durangoko Azokan beleak agertzen dira. Euskararen erabileraren inkesta soziolinguistikoen emaitzez jakitun, "*politically correct*" ariketak ez du inor harritzen jada. Ttattarrik gabe, *cool* eta irria ahoan, denek adierazten diote beren atxikimendua euskarari eta euskal kulturari. Kar-kar-kar. Sekula irakurriko ez dituzten urteko liburuak erosi eta betiko adierazpenak egin: "Euskal kultura oooooo inportantea da".

Baina, zenbat da inportantea? Erronkaren bihotzera jo behar da: *zenbat* horretara. Dirutan, zenbat da inportantea? Zeren hemen, euskal kulturaren eragileek gosez daudela elikatzen dute hain inportantea den kultura hori. Lanarteak ateratako inkesta berria frogatzat, prekaritatea da nagusi kultur eragile eta sortzaileen artean, eskaintzaren eta irisgarritasunaren kalterako.

Egungo administrazioen politikek ezindurik, euskaraz sortu eta ekoiztako obrak ezin zaizkio euskal herritarren gehiengoari iritsi. Gure herrian, klase politikoaren utzikierarik gabe ez litzateke diskriminazio antolatu eta sistematiko hau posible izango. Utzikieria, ezjakintasuna, kolonizatuaren konplexua, anbizio eskasia, akulturazioa... ez dakit zehazki zerk bultzatzen duen bizi dugun suntsitze kultural jarraikia.

Gure herrian,
klase politikoaren
utzikierarik gabe ez
litzateke diskriminazio
antolatu eta sistematiko
hau posible izango

Gure gazteriari euskal pentsaera eta sentiberatasuna garatzea debekatzen zaio, ez baitzaio bermatzen edozein sistemak sustatu behar lukeen betebeharrak: emantzipaziorako gaitasuna suposatzen duen hezkuntza kultural duin bat. Horrek dit bihotza eta zintzurra hertsatzen, ez nire ofizioak. Azken batean, nire ofizioa nik hautatu dut, baina nire haurrek ez dute egoera hau hautatu. Beraiena ez den hizkuntza batean eta arrotzak zaizkien eredu batzuen menpe loratzera behartzen zaie, euskara arrotz bilakatuz eta euskal kultura "paleo-kultura" estatusera lekutuz.

Saiak beleari esker iristen dira hilotzaren haragiaz gozatzera, beti. Gaur egun, Stanfordeko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, maitasun topa-

keten %60,76 online egiten dira. Hots, amodio istorioen gehiengoa komertzializatua da. Plataforma horiek garatzen duten eredia errotik patriarkala da eta gaztelaniaz edo frantsesez mintzo da. Jendartearen intimitatea ere saldu da, merke, barne erbestera behartzen gaituen hizkuntza batean zabaldu eta garatu gaitezen. Gure haurrez mintzo naiz, beraien bihotz, arima, koskoil eta obarioez. Beleek salduak saien gozamenarako.

Urteroko aurrekontuen negoziazioaren dantzan, euskal kultura ez da lerroburu bat izan; ez lerroburu, ez eta gai ere, segur aski. Oooooo inportantea izan arren, euskal kultura ez delako gai bat errealki. Alta, ez litzateke hain garesti gure gazteriaren oinarrizko eskubideak bermatzea. Gauza sinpleak sustatuz, harkada batean egoerari bihurtu gune bat eskaintzeko aukera logoke.

Zenbakitan idatzita, urtero haur eta gazte bakoitzak antzezlan pare bat, liburu pare bat, disko pare bat, film pare bat, nahiz bertso saio pare bat gozatze-ko eskubidea ukan beharko luke, bere ongizate eta emantzipaziorako. Astero poema pare bat maitasuna adierazteko, "*switch*" kulturatik at.

Ez dakit nola eta noiz egingo diogun planto beleen iruzurrari, baina goiz edo berant behartuak izango gara, ez badugu guhaurek gure garunen eta bihotzen kolonizazioaren konplize izan nahi. Edo bai. Hautu kontu bat da. ●